

## Nafarroako euskararen historiaz

Joseba Intxausti

Ofizioko jaun-andre jakitunek sarritan esan dutenez, historilarien belaunaldi bakoitzak idatzi ohi du bere Historia propioa; hau da, norberaren bizialdiko galdera historikoei erantzunez idazten omen da historiografia. Gu ere saiatuko gara gaurko buruhausteetatik iraganari galdetzen.

Baina lehenik itaun bikoitz praktiko bat: Zein "Nafarroaz" eta zein nafarrez hitz egin nahi dugu hemen? Komeni da horretaz oharren bat egitea.

*Nafarroa* edo *nafarrak*, beren adiera geografikoan hartzen ditugu batez ere; baina ñabardura historiko zenbait ere gogotan dugula. Beraz, gaur eguneko Nafarroaz ari gara (Nafarroa Beherea ere Nafarroa dela, noski); hala ere, muga horiek nahikoa hertsia gertatzen zaizkigu berehala. Gertakari historikoei bortxatuta, gaur eguneko kontzeptu geografiko hori anakroniko eta ez-aski bilakatzen zaio laster historiografiari, eta unean uneko egoera be-